



# eusko alkartasuna

legebiltzar taldea - grupo parlamentario



	EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO SARRERA - ENTRADA
2008 ABE. DIC. - 5	
Nº 14893 ZK.	
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL	

## EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Unai Ziarreta Bilbao Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldeko bozeramaileak, Araudiak dioenari jarraituz, honako **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMEN** hau aurkezten du, osoko bilkuran berehala eztabaidatzeko, Eusko Legebiltzarraren egoitzaren kanpoaldean bakarrik ikurriña egon dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Eusko Legebiltzarrak Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Aretoaren epaia jaso du arestian, Legebiltzarraren kanpoaldean Espainiako bandera modu iraunkorrean egon dadila agintzen duena, alegia.

Herri guztien ikur guztiei, espainiarrak barne, diegun errespetutik, argi dago espainiar banderak zatiketa eragiten duela euskal gizartean, ez duela euskal gizarte osoa ordezkatzeko eta ez duela gizarte demokratiko batean behar den adostasuna lortzen.

Bestalde, legebiltzar-talde honen iritziz, erabaki hau botere banaketaren aurkakoa da eta, baita ere, Autonomi Estatutuaren 25. artikulua ezartzen duen Legebiltzarraren bortxaezintasunaren eta erakunde honen autonomiaren kontrakoa. Bere egoitzari eta bere barne funtzionamenduari buruzko erabakiak hartzeko orduan ahalmena duen bakarra instituzio honek izan behar du.

Hau guztia dela-eta, legebiltzar-talde honek Legez Bestekeko Proposamen hau aurkezten du osoko bilkurak berehala eztabaida dezan.

Eusko Legebiltzarrak adosten du:

Eusko Legebiltzarreko eraikinaren kanpoaldean bakarrik ikurriña egon dadila, euskal gizartea osatzen duten pertsona guztiak ordezkatzeko duen bandera gisa.

### PREMIAREN JUSTIFIKAZIOA

Legebiltzarrak epaia jaso ondoren Mahaiak egoitzaren kanpoaldean espainiar bandera jartzea erabaki duela eta hori hil hau amaitu aurretik gerta daitekeela kontuan hartuta, premiazkoz jotzen dugu Legebiltzarrak hori gertatu baino lehen iritzia eman eta erabakitzea zer banderak izan behar duen egoitzaren kanpoaldean egongo dena.

Gasteizen, 2008ko abenduaren 5ean

Unai Ziarreta Bilbao  
Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldeko bozeramailea